

Emakumeak eta lana Bidaurretan



Edizioa

Bidaurretako Udala

Ikerketa

Beatriz Gallego Muñoz (Labrit Patrimonio)

Itzulpena

Traducciones CCI

Laguntzaileak

María Ángeles Gorritxo Itoiz

Asun Echauri Echagüe

Rosamari Labiano Zabalza

María Jesús Goikoetxea Tabar

Josefa Beloki Arrondo

Felicitas Urrea Irujo

Isabel Tabar Berrondo

Begoña Armendariz Murillo

Irene Antona Erdozain

Enara Rabina del Río

Diseinua eta maketazioa

AZ2 Comunicación

Inprimatzea

Gráficas Ulzama

Lege Gordailua

NA2730-2022

Aurkibidea

Sarrera: Bidaurretaren ezaugarri sozioekonomikoak eta demografikoak XX. mendean	5
Metodologia eta iturriak	9
<i>Metodologia</i>	
Informazioa biltzeko fasea	
Txosten historiografiko bat dibulgaziorako prestatzeko fasea	
<i>Genero-ikuspegia duten iturriak</i>	
Bidaurretako emakume langileak	15
<i>Bidaurretako lanbide eta jarduera identitarioak eta haietan emakumeek duten presentzia</i>	
Lehen mailako sektorea	
Bigarren mailako sektorea	
Zerbitzuen sektorea	
Zaintzen sektorea	
Emakumeen ogibideak eta lanak	31
<i>Sozialki mailaz igotzeko baldintzak eta aukerak</i>	
<i>Emakumeak eta komunitatearentzako lanak</i>	
Etxe barruko eta kanpoko lana. Kontziliazioaren gai korapilatsua	36
Emakume horien omenez: Bidaurretako erreferentziazko emakumeak	38
Ondorioa	40
Bibliografia	41

Sarrera: Bidaurretaren ezaugarri sozioekonomikoak eta demografikoak XX. mendean

Gran Enciclopedia de Navarra dakar Bidaurreta Iruñeko barruti judizialari dagokiola, Iruñeko merindadean, Etxauribarreko eskualde geografikoan, eta 5,4 km²-ko azalera duela, 433 metrotara dagoela eta Nafarroako hiriburutik 19,5 kilometrotara. Udalerriko klima aspimediterraneokoa dela dakar. Era berean, honako udalerrri hauek dituela mugakide: iparraldean, Etxarri; ekialdean, Zabaltza; hegoaldean, Beraskoain eta Girgillao, eta, mendebaldean, Jaitz eta Gesalatz. Erliebea oso malkartsua dela dio, eta, bertan, nabarmentzekoa dela "Arga ibaiaren terraza baxuari dagokion lautada txikiaren eta Bidaurretako mendilerroaren malda handien (870 m) arteko" kontrastea¹.

Hura da Bidaurretaren zati aldaezinaren aurkezpena. Deskribapeneko puntu horretatik aurrera, udalerrriaren 1980ko hamarkadako ezaugarriei buruzko informazioa ematen da, hirurogeiko hamarkadatik hainbat eta hainbat herrik ezagutu duten beheranzko joera demografiko orokorra maila baxuenetara hurbiltzen ari zeneko sasoikoa. Kontuan izan behar dugu 1900. eta 1920. urteen artean, 266 biztanle zeudela zentsuan batez beste. Hurrengo hamarkadetan gorabeherak izan ziren. 1960an, hasierako kopurua 219ra jaitsi zen. Eta 1991n, 110era iritsi zen. Bestalde, 1980ko hamarkadako lehen erdialdean, udalerriko biztanle aktiboen %80k oraindik nekazaritza-lanak egiten zituzten, baina heren batek baino ez zuen jarduera nagusi gisa².

¹ Gran Enciclopedia de Navarra. http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=20675.

² Gran Enciclopedia de Navarra. http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=20675.

XX. mendeko azken tartera arteko Bidaurretan egunerokotasuneko panoramika horretan, bi elementu funtsezkoak izango dira, tokiko ekonomia ulertzeko ez ezik, ondoko belaunaldiak zer mentalitate eta kodetan sozializatu ziren ulertzeko ere: batetik, familia gehienek bizi zuten errealitatea, hau da, biziraupeneko ekonomia, erabakigarria baliabideak aprobetxatzeko orduan; bestetik, lotura sozialen garrantzia (familiakoak, herrikoen artekoak, elkartasunekoak...), udalerrian bizi zirenen artean sortuak.

Bi dimentsio horiek elkarri lotuta daude eta, gainera, ardatz batek zeharkatzen ditu, nahitaez kontuan hartu beharrekoa, pertsona bakoitzak garatu behar duen eginkizuna zehazten baitu: sexu-genero sistema. Alegia, esleitzen zaigun sexu biologikoa nola den gizon eta emakumeen artean ezartzen diren harremanak zehazten dituen gizarte- eta kultura-eraikuntza osoaren (generoa) oinarria (Bravo Suescun, 2012:40). Eraikuntza horrek, era berean, lanaren sexu-banaketa delakoan ere badu eragina; hark jarduera jakin batzuk lehenesten ditu gizonentzat edo emakumeentzat, sexuaren eta hark ematen dizkion gaitasun eta gabezien arabera.

Banaketa horrek, tradizioan, jarduteko eremuak zehaztu ditu: emakumeentzat, etxe-eremukoa, hurbileneko ingurune fisikoa barne (baratzea...), eta, gizonentzat, abeltzaintza nagusia eta etxetik urrunagoko arloetako (zelaia, mendia...) jarduerak. Hala ere, egoera horiek alda zitezkeen, eta, batez ere, eskulana behar zen sasoiatan (esate baterako, nekazaritza-zikloaren une batzuetan), gizonen eta emakumeen eginbeharra partekatzen zuten. Baina, nolana ere, sexu-baldintza beste eremu batzuetan ere islatzen zen: sozializatzeko denborak eta lekuak (emakumeak, elizaren babesean, esaterako, erlijio-elkarteetan parte hartzen; gizonenekoak, aldiz, tabernan edo beste aisia mota batzuetan, hala nola jokoa eta kiroletan). Denbora eta espazioen banaketa hori islatzen zen, zalantzarik gabe, talde bakoitzari esleitutako eginkizunen ikusgaitasunean ere, bai eta ordezkartzarako ahalmenean ere (esaterako, kontzejuetan); alegia, kolektibitatearen inguruan erabakitzeko eta jarduteko gaitasunean (Barandiaran eta Manterola, 1998 eta 2011).

Egoera horren aurrean, honako **helburu** hauek planteatu ziren:

- ✓ Bidaurretan emakumeen lana agerian jartzea eta, horretarako, ahozko iturriei eta bibliografia eta dokumentu bidezko eginiko kontsultan oinarritutako ikerketa-lana egitea.
- ✓ Emakumeek, bai ekoizpen-eginkizunari bai ugalketa-eginkizunari eginiko ekarpenaren bidez, udalerriko ekonomia- eta gizarte-garapenean izandako paper aktiboa aldarrikatzea...
- ✓ Estereotipoak haustea eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzea, bai eta kontziliazioaren inguruko erantzunkidetasuna ere, tokiko erreferenteen bidez.

XX. mendean izan ziren gizarte-, politika- eta ekonomia-eraldaketek XXI. mendeko Bidaurreta ekarri zuten. Eta, hain zuzen ere, ikerketa hau egin da aurreko belaunaldietan bizi izan zuten errealitatea ezagutzeko. Ikerketak emakumeen lanean jartzen du arreta; izan ere, tradizioan desberdintasunak naturalizatu izanak ekarri du emakumeek berek egiten dituzten jarduerak gutxieste eta, ondorioz, iturrietan ordezkartza gutxiago izatea.



[Nicolás Ardanaz. Nafarroako Museoa, Iruña]

Metodologia eta iturriak

Metodologia

Ikerketa hau egiteko metodologia hiru faseren inguruan egituratu zen: informazioa biltzea, aztertzea eta idaztea.

Informazioa biltzeko fasea

Informazioa bi transmisio-ardatzen bidez bildu da, ahozkoaren eta dokumentalaren bidez:

Lehenengo eta behin, Nafarroako Ondare Materiagabearen Artxiboaren barruan Bidaurretari buruzko funtsak hustu ziren. Alegia, udalerriko zazpi lekukotzaren ikus-entzunezko bilketa egin zen; lekukotza horiek udalerrira bereziki egokitutako galdetegi etnografiko oso bati buruzko elkarrizketa sendoetatik batu ziren. Hustuketa egungo ikerketari buruzko gaiaren, hau da, lanaren eta emakumeen, irizpide nagusiak oinarri hartuta egin zen. Hala, herriko lan identitarioenak, emakumeek haietan eta beste batzuetan duten presentzia, rolen banaketak eta abar ezagutzeko lehen hurbilketa bat egin zen.

Tokiko lan-talde batek elkarlanean jardun zuen; lau emakumek eratzen zuten taldea (Irene Antona Erdozain, Begoña Armendariz Murillo, M^a Jesús Goikoetxea Tabar eta Enara Rabina Del Río), eta, haiei esker, 2021eko abenduan³, parte hartzeko saio bat egin zen, eztabaida-taldearen formatuarekin, udalerriko emakume adinekoekin, XX. mendeko bigarren erdialdeko jarduera nagusiak ardatz hartuta. Saio horren bidez, ordura arte batutako informazioa egiaztatu eta zabaldu zen, eta bertaratutakoek XX. mendeko Bidaurretako lanaren eta emakumeen inguruko hausnarketak partekatu eta bildu zituzten. Saiora haien lan-ibilbide eta bizitzako esperientzietan oinarrituta berariaz gonbidatu zituzten zazpi emakume bertaratu ziren. Hautaketa horren bitartez, helburu bikoitza lortu nahi zen: batetik, emakumeek berek jarduerak zer baldintzatan egin zuten ezagutzeko informazio kualitatiboa batzea, eta, bestetik, ahozko iturrien denbora-esparrua zabaltzea eta, horretarako, haien ama eta amonei buruz emakume horiek zuzenean (lekuko izan zirelako) edo zeharka (aurreko belaunaldietako emakumeek kontatutako oroitzapenak, bitxikeriak eta abar ezagutzen zituztelako) jakin zezaketen informazioa batzea. Agiri honetan, letra etzanez ageri diren testu-zatiak saio horretan hartutako aipuak dira, eta euskarara ekarri dira bertsio honetan.

Ondoko emakume hauek parte hartu zuten saioan: María Ángeles Gorritxo Itoiz, Asun Echaui Echague, Josefa Beloki Arrondo, Rosamari Labiano Zabalza, María Jesús Goikoetxea Tabar, Josefa Beloki Arrondo, Felicitas Urra Irujo eta Isabel Tabar Berrondo.

³ Hasiera batean, lehenago egitea aurreikusita zegoen, baina, osasun-egoerak direla eta, atzeratu behar izan zen.

Bibliografia- eta dokumentu-iturriei dagokienez, hura genero-ikuspegitik berrikusi zen, hiru eremutan:

- ✓ Bibliografia-berrikuspen orokorra, emakumeei eta lanari eta ahozko iturriek ezagutza-eremu horretan egiten duten ekarpenari buruzko ikerketetan genero-ikuspegia sartzeko.
- ✓ Nafarroako bibliografia-berrikuspen berezia, emakumeek XX. mendean betetako lanari buruzkoa.
- ✓ Tokiko eta eskualdeko bibliografia-berrikuspena. Emakumeen lana erakusten zuten XX. mendeari buruzko tokiko lanak kontsultatu ziren. Hori horrela, udalerrian eginiko agiri bat nabarmendu behar da: “Los oficios de las mujeres en Bidaurreta en la segunda mitad del siglo XX”, tokiko lantaldeko bi kidek eginiko ikerketa baten ondoriozkoa (Irene Antona Erdozain eta Begoña Armendariz Murillo), bi informatzailek emandako lekukotzetan eta argazki eta ikus-entzunezko materialean oinarrituta.
- ✓ Argazki-materiala bilatzea, bai Nafarroako Museoa bai udalerrian bertan; horretarako, herritarrei dei egin zitzaion, ikerketarako irudietarako materiala emateko.

Txosten historiografiko bat dibulgaziorako prestatzeko fasea

Txosten hori honako agiri honetan datza; aurreko faseetan lortutako emaitzak jasotzen ditu, eta ikertutako gaia zabaltzeko eta sentsibilizatzeke etorkizuneko ekintzak egiteko oinarri gisa jardun dezake.

Genero-ikuspegia duten iturriak

“Generoa kontzeptu gisa sartu izanaren ondorioz, harreman sozialetan nola diharduen eta ezagutza historikoko eragile nola bilakatzen den esaten diguten teoriak garatu dira” (Bravo Suescun, 2012: 55). Kontzeptu hori 1970eko hamarkadatik aurrera emakumeen historia-ikasketetan kategoria analitiko gisa aplikatu izanak memoria kolektiboa berreskuratzeko bide eman zuen, eta aukera eman zuen emakumeak ageriago jartzeko, historiaren bidez, bai eta historian duten eginkizuna interpretatzeko ere. Ordura arte publiko-pribatu, botere-sumisio eta beste ardatz batzuen inguruan erabilitako kontzeptu zurrunen berrikuspen kritikoen ondorioz, interpretazio konplexuagoak egin ziren emakumeek gizarte-, kultura-, politika- eta ekonomia-eremuetan izandako presentzia historikoari buruz. Hala sortu ziren lan orokor batzuk eta, haien ondorioz, beste espezifikoago batzuk; besteak beste, emakumeen lanari buruzko azterlanen diziplinan oinarritutako ikerketek bibliografia zabala ekarri zuten, eta haiek ikuspegi eta kategoria ugari, hala nola etxeko lanaren, merkatuaren eta ekoizpen eta ugalketaren arteko harremanen birformulazioa (Bravo Suescun, 2012: 42-48).

Hau da, gizarte-historia laurogeiko hamarkadatik aurrera paradigma gisa eztabaidan jarri ondoren, genero-historia eta azterlan feministak gizarte-historia ulertzeko beste modu bat zirela ikusi zen, eta komunitate zientifikoaren interesa piztu zuten. Iturri konbentzionalik ez zegoenez emakumeei buruzko azterlanak egiteko (izan ere, ordezkari gutxiago dute agiri ofizialetan, artxiboetan, etab.), azterlan berriak paraleloan garatzen joan ziren, **iturri historiko berriak bilatzeko, eta, haien artean, ahozkoa izan zen aberastasun gehien zekarrena** (Díaz, 2012:188).

“Ahotsik gabekoei ahotsa ematean” (emakumeei, mendeko klaseei, gizarte-talde baztertuei, gutxiengo etnikoei, etab.) iraganaren inguruko beste narratiba batzuk sortu dira, gertakari “ofizialen” beste bertsio batzuk, eta, hala, beste ikerketa-eremu batzuk zabaldu dira, hala nola eguneroko bizitza, sexualitatea edo identitateen sorrera (Llona, 2012:39-40), eta historia ikuspegi demokratikoago batetik birformulatu da; ondorioz, “isilpean gordetako gutxiengoen” kontaketeak iturri konbentzionalen aldean oreka dakarte, iturri horiek, tradizioan, eliteak izan baitituzte ardatz (Díaz, 2001:26) eta joera androzentriko argia izan baitute. José Antonio Pérezek esan bezala, ahozko historian benetan berriena ez da informazioa lortzeko teknika jakin bat erabiltzea –bestalde, oso zaharra–, baizik eta tratamenduak ikerketa historikoari dakarkion aberastasuna, gizabanakoek berek –kasu honetan emakumeek– haien bizitza arautzen duten eta historian bigarren mailara baztertu dituzten arau, lege, portaera eta ohituren inguruan duten pertzepzioan sakontzeko balio dutenak, hala izan ezean ikerketa kuantitatiboetatik kanpo geratuko bailirateke (2004:11-12).

Bestalde, ahozko iturriak erabiltzean, kontatzen diren gertakari edo prozesuak eta diskurtsoa nola antolatzen den azter daitezke, eta ahoz esaten ez dena interpreta edo, behintzat, hausnar daiteke. Hala, nabarmentzekoa da Luisa Passeriniren ekarpena, eta hark eginiko *interpretazioaren bira*, protagonismo handiagoa ematen baitio subjektibotasunari eta bi norabidetan aurrera egiteko aukera ematen baitu: batetik, banako memoriaren eta gizarte-memoriaren arteko harremanean, eta, bestetik, narrazio-alderdiak eta oroitzapenen subkontzienteak kontuan izateko beharrean (Llona, 2012:40-41). Hala, zuzenean eskuratutako informazioaren analisia eta interpretazioa bezain esanguratsua da ezkutaketeak eta isiltasunek adieraz dezaketena, “esaten dena eta esaten ez dena” (Díaz, 2001:25)⁴. Ezaugarri horiengatik jo ohi da ahozko iturrietara, lanarekin, klase sozialarekin, mentalitateko eraldaketekin, eguneroko bizitzarekin edo jarrerekin lotutako identitateak sortzeko prozesuak aztertzeko tresna gisa. Pilar Folguerak esan bezala, kolektibitate baten eguneroko bizitzaren historia ez da baztertzekoa, “gertakari historikoaren ardatz ikusezina” baizik (1987:11).

Ikerketa honi dagokionez, haren gaiaren eta helburuen bidez, metodologiaren bidez eta udalerrian **ahozko lekukotzen** bidez (funtsean, Nafarroako Ondare Materiagabearen Artxiborako bilketa eta XX. mendearen bigarren erdialdean emakumeen lanei buruz eginiko ikerketa) biltzeko proiektuen modu horri jarraikiz eremu horretan aurrekariak egon izanari esker, hurbilketa bat egin ahal izan zen ikuspegi etnografikotik. Hala ere, jarduera zehatzak (nekazaritza edo haren eremu jakin batzuk; lanbideak;

“Ahotsik gabekoei ahotsa ematean” (emakumeei, mendeko klaseei, gizarte-talde baztertuei, gutxiengo etnikoei, etab.) iraganaren inguruko beste narratiba batzuk sortu dira, gertakari “ofizialen” beste bertsio batzuk, eta, hala, beste ikerketa-eremu batzuk zabaldu dira, hala nola eguneroko bizitza, sexualitatea edo identitateen sorrera (Llona, 2012:39-40), eta historia ikuspegi demokratikoago batetik birformulatu da.

⁴ Gertakari hau bereziki nabarmena da genero-ikerketeki ahozko iturriak aplikatzean, emakumeek haien diskurtsoa egiteko izaten duten moduagatik.

sinesmenak...) ardatz dituzten lan eta monografia etnografiko asko ez bezala, oraingoan, funtsezkoa zen, jarduera horien xehetasun espezifikoean sakondu beharrean, emakumeek lanarekin duten loturari buruzko ikuspegi panoramikoa ematea eta, horretarako, generoari kategoria analitiko gisa heltzea eta zenbait belaunalditako emakumeek dauzkaten elementu berak eta bereizleak bilatzea.

Eskuratutako informazioaren ezaugarriek eurek islatzen dute zer puntutaraino izango ziren emaitzak desberdinak, elkarriketatara jo izan ez balitz eta bibliografia- eta dokumentu-iturriak, "historikoak", ustez "objektiboak" soilik baliatu izan balira, kontuan hartuta haietan Bidaurretako emakumeen eginkizunek eta haiek deskribatutako jarduerak oso gutxitan izango luketela lekua, etxeko esferara mugatuta baitzeuden (etxe barruan edo aire zabalean egin) eta enplegu-estatistiketatik, soldatetatik eta beste hainbatetatik kanpo geratzen zen bizirauteko ekonomia baten barruan.

Hala, bada, interesgarria da aipatzea ahozko historiari egotzitako arazoen artean honako hauek nabarmentzen direla: sortutako dokumentazioaren ordezkartzearekin eta egiazkotasunarekin zerikusia dutenak (Folguera, 1994:19; García-Orellán, 2012), lekukotza subjektibo izateak hain fidagarri ez izatea ekarriko balu bezala, kontuan hartuta, gainera, benetan geure buruari okerrak eta itxuraldatuak diren lehen mailako beste iturri batzuen fidagarritasunaz galdetu beharko geniokeela. Egoera horren aurrean, Thompsonek honako hau proposatu zuen: "barneko koherentzia bilatzea, egiaztapena beste iturri batzuetan aurkitzeko ahalegina egitea eta egon daitezkeen desbideratzeetara adi egotea" (1988:128-134), iturri baten egiazkotasuna ezartzeko baliozko irizpide gisa. Hori horrela, **azterlan honetarako bildutako lekukotzek emandako informazioak eta parte hartzeko saioan baliozkotu izanak berretsi egiten dute egiazkoa eta koherentea dela.**

Genero-ikuspegia proiektatu behar da, era berean, **dokumentazio historikoan**; hura ez da iturri nagusi gisa erabili azterlan honetan, baina aukera ugari dituen ikerketa-eremu bat da. Nabarmentzekoa da, zentzu horretan, 2019an Nafarroako Administrazio Artxiboak garatutako ekimena; "Emakumeak eta agiriak" izeneko jardun-ildoak jarri zuen abian (<https://www.fondoscontemporaneosnavarra.es/eu/emakumeak-eta-agiriak>). Hala eman nahi zen ezagutzera gutxienez artxiboaren funtsen lagin bat eta, horretarako, "gaur egungo Nafarroako emakumeen lan-, gizarte-, ekonomia- edo politika-baldintzen lekukotza –askotan bakarrak–" gisa gordetako agiriak erakutsi.

Azkenik, **argazkigintza** ere informazio-iturri bat da. Carmen Bravo Suescun-ek dioenez, emakumeen historiaren eremuan, irudiak bereziki interesgarriak dira, besteak beste, "gutxi daudelako, ez baitira gizarte-arretarako xede, eta, hori berori dela eta, emakumeen irudiak ezagutzeak eta aztertzeak historiografiari haien eginkizunari buruzko informazio ugari eman diote". Ahozko iturriek iturri tradizionalak ez daukaten informazioa ematen dute, eta irudiek, testuingurua, "ez hitza laguntzeko edo irudikatze, baizik eta, askotan, hipotesi teoriko bat oinarritzen duen lekukotza historiko bakar gisa" (2012: 22). Ikerketa honen kasuan, bi argazki mota daude: Bidaurretako auzokideek utzitakoak eta Nicolás Ardanaz funtsekoak; haietan emakumeak ageri dira zenbait jarduera egiten, nahiz eta, kasu askotan, udalerrri zehatzaren berri ez izan eta gehienetan ordainpeko enpleguak ez izan. Lehenengoetan etxekotasun-izaera da bereizgarri eta, bigarrenetan, izaera nabarmen artistikoa da, bai eta idealizatua ere. Baina, estetika edo nahitasuna alde batera utzita, guztiak dira **emakumeek egin ohi dituzten lanen lekukotza grafikoak.**



[Nicolás Ardanaz. Nafarroako Museoa, Iruña]

Bidaurretan, XX. mendeko lehen bi herenetan, gutxienez, bizirauteko nekazaritza zen nagusi, etxerako ahalik eta autohornikuntza-maila handiena lortzera bideratua; horregatik, zereginak askotarikoak ziren, eta emakumeen presentzia, handi samarra haietako askotan. Kasu batzuetan, gizonekin batera egindako jarduerak ziren, eta, beste batzuetan, berriz, emakumeen berariazko eskulana izaten zen.

Bidaurretako emakume langileak

Bidaurretako lanbide eta jarduera identitarioak eta haietan emakumeek duten presentzia

Lehen mailako sektorea

“Nekazaritzaren historia, neurri handi batean, genero femeninoan gertatutako historia bat da”, esan zuen José Miguel Lana Berasainek. Hala ere, oraintsuko garaitik hona baino ez zaio aplikatu nekazaritzari genero-ikuspegia, zeinak, tradizioan, gizonezkoak izan baititu ordezkarri. Emakumeek iturrietan duten ordezkaritza eskasa oso nabarmena da izaera ekonomikoko iturrietan; izango balira, informazio handia emango lukete emakume langileen jabetza eskuratzeko moduei eta zailtasunei, lan-baldintzei, soldatei eta abarri buruz, gizonezko langileekin alderatuta. Eremu horretan, gaur egunera iritsi den informazio asko ahozko iturrietatik dator, eta emakumeen soldatak gizonezkoenak baino txikiagoak zirela erakusten dute, ez soilik nekazaritzan, baita industrian ere. Desoreka horren arrazoia ez da produktibitatearen kontu bat, baizik eta botere negoziatzailea; izan ere, sistema patriarkal batean txikiagoa da emakumeentzat (2019: 2-8). Joera hori are nabarmenagoa izan zitekeen norberaren lurra edo errentan hartutakoak lantzen ez zituztenen artean, hau da, jornalean lan egin behar zutenen artean (ez beti baldintza duinetan, baldin eta eskulanaren eskaria txikia bazen, etxera soldata bat eramateko prest zeuden eskuen eskaintza ugariaren aurrean). Hala ere, Bidaurretan ez dago inon jasota bizitza jornalari gisa irabazi zuen emakumerik egon denik.

Bidaurretan, XX. mendeko lehen bi herenetan, gutxienez, bizirauteko nekazaritza zen nagusi, etxerako ahalik eta autohornikuntza-maila handiena lortzera bideratua; horregatik, zereginak askotarikoak ziren, eta emakumeen presentzia, handi samarra haietako askotan. Kasu batzuetan, gizonekin batera egindako jarduerak ziren, eta, beste batzuetan, berriz, emakumeen berariazko eskulana izaten zen.

Aztergai ditugun garaietan, laborerik garrantzitsuenak zereala, erremolatxa, artoa, mahastia eta beste fruta-arbola batzuk ziren, bereziki gereziendoak. Haietako bakoitzak zeregin batzuk zituen, eta emakumeek zeregin horietan esku hartzen zuten.



[Asun Echaurre, gereziak hartzen]

Jarduera hori batez ere emakumeek eta haurrek egiten zuten eskolatik irtetean (batzuetan eskolara ere ez ziren joaten).

Mahastizaintzaren barruan, **txertaketak** dira bereziki aipatu beharrekoak; izan ere, espezializazio jakin bateko jarduera izatera iritsi zen, ez hainbeste etxean erabiltzeko, baina bai, nagusiki, salmentara bideratua. Neguko lana zen; tokiko mahats-barietateekin (normalean garnatxa) zotzak egitean eta andui amerikarrea txertatzean zetzan.

Ahaidetasun- eta/edo auzo-loturak zituzten gizon eta emakumeak etxe batean bildu eta katean lan egiten zuten, baina eginkizun espezifikoekin: gizonak xirmenduak ireki eta ziriak egiten zituzten; emakumeek zotza hagan sartzen zuten, trebetasun handiz eta azkar lotzen zuten, eta pilatuz joaten ziren. Txertaketa horiek Aguacaliente izeneko eremuan jartzen ziren (kalitate handiko lursaila, Beraskoingo bainuetxearen ondoan, uraren ezaugarriengatik eta ibaiko lohiagatik), eta, prest zeudenean, Lizarrako merkatura eramaten zituzten saltzera. Beste produktu batzuetan ez bezala, aurrerago ikusiko dugunez, badirudi plaza horretan txertaketak saltzea gizonekin lotuago zegoela. Bestalde, zeregin horiek elkarri laguntzeko egiten ziren arren, esperientziak berak emandako trebetasunaren ondorioz, pertsona jakin horietako batzuk zenbait etxetara joateko eskatzen zuten.

Hala, **zerealaren** kasuan, igitaiaz edo segaz uztak biltzen, gari-sortak eskukadaka hartzen eta lotzen, pilatzen, garia jotzen eta abar ikus genitzakeen.

Artoaren kasuan, ereiteaz eta biltzeaz gainera, aletzeko lana ere bazegoen. Lan hori familian egiten zen, gauez, eta denbora eta leku bat partekatzen zen horretarako (sukaldea, adibidez); haietan, hitz egiteko edo arrosarioa errezatzeko aprobetxatzen zen, adibidez.

Erremolatxaren garaian, emakumeek ereiten, bakantzen, jorratzen eta, bilketan, erremolatxak garbitzen laguntzen zuten, gero azukre-lantegira eramateko.

Bestalde, **fruta-arbolak** laboratzeak ere arreta eskatzen zuten, batez ere bilketagaraian.

Mahastiak ere zainketa asko behar zituen: landatzea, abartzeak kentzea, mahatsa biltzea... Gogoan dituzten lanetako bat zen enborrean xirmenduaren azpitik ateratzen ziren kimuak kentzea, indarra gal ez zezan.



[Nicolás Ardanaz. Nafarroako Museoa, Iruña]



[Sagrario Goikoetxea, 1966-1967 inguru]

Baratzea ezinbesteko elementua zen familiaren iraupenerako. Pertsonentzat askotariko produktuen iturri iraunkorra izateaz gain, animalia txikientzako elikagaiak ere ematen zituen. Gainera, soberakinak, halakorik bazegoen, saldu edo beste produktu edo zerbitzu batzuegatik trukatu zitezkeen. Tradizioz, baratzea zaintzea⁵ emakumeei esleitutako betebeharren artean zegoen: ekoizpenaren hedadura eta bolumena beste labore batzuen baina askoz ere txikiagoa zen; beharrezko dedikazioak, urtean zehar gutxi gorabehera modu iraunkorrean bada ere, beste betebeharrak batzuk betetzeko aukera ematen zuen. Hala, nolabait, baratzea etxeko eremuaren luzapentzat hartzen zen.

Testuinguru horretan daude, era berean, ia etxe guztietan zeuden tamaina txikiko **animaliak zaintzearekin** (oilokak, ahateak, oilaskoak, untxiak, usakumeak...) lotutako jarduerak, bigarren mailako beste produktu batzuk lortzeko aukera ere ematen zutenak, hala nola arrautzak.

Behien kasuan, familiak bere burua esnez hornitzen zuen eta, batzuetan, herrian bertan saltzen zen soberakina (dela zuzenean beste etxe batzuetara banatuz edo esne-saltzaileari emanez) edo handik kanpo, adibidez, Etxarrira edo Beraskoingo bainuetxera eramanez.

Esnez hornitzeko beste iturri bat, kopuru txikiagoan bazen ere, etxean izaten zituzten ahuntzak ziren (egunean zehar, bazkatzera eramaten zituen ahuntzain baten zaintzapean egoten ziren). Gainera, antxumeak hazteak uda osorako haragia hornitzea zekarren, ez hainbeste lortutako kantitateari esker, bai, aldiz, "ordea"ren ohiturari esker.

⁵ Bidaurretaren kasuan, baratzeak ez zeuden etxebizitzetatik hurbil (beste eremu batzuetan, berriz, bai); La playa eta Aguacaliente mugarteetan zeuden. Jasota dago Aguacaliente mugartean baratzerik ez zuten familien arteko lur-banaketa egin zela; bertan, noria bat ere eraiki zen.



[Nicolás Ardanaz. Nafarroako Museoa, Iruña]

Baina, zalantzarik gabe, haragi-horniduraren iturri nagusia **txerri-azienda** zen. Ohikoena etxerako txerrama bat edo bi haztea zen (familiaren tamainaren arabera), familia urte osoan zehar haragiz hornitzeko, txerri-hilketaren bidez. Hala ere, txerriak haztea diru-iturri garrantzitsua izan zen azkenean, eta, 1950eko hamarkadaren amaiera eta 1960ko hamarkadaren hasiera inguru, diru likidoa lortzeko lehen moduetako bat izan zen, eta, ondorioz, udalerrian txerritegi kopurua handitu egin zen. 1964an Argaleko etxaldea eraikitzen hasi zenean, Bidaurretako zenbait etxek urteak zeramatzen txerriak hazten.

Animalia horiek hazteko zainketak honako hauek dira: animalia horiek elikatzea (janaria jartzea, larreetara eramatera eta abar, kasuen arabera), bizitegiak garbitzea (oilategiak, kortak, txerritegiak), gaixotasunen aurrean zaintzea, bigarren mailako elikagaiak lortzea (esnea jeztearen bidez, arrautzak...). Zeregin horietan, emakumeek eginkizun aktiboa zuten, bai eta produktu horien guztien salmentan ere, dela eremu geografiko hurbilenean (esnearen kasuan aipatu den bezala), dela merkatuan.

Txerrien gaira itzuliz, herrian jarduera hau indar handikoa izan zen urteetan, txerri saltzaileen irudia zegoen, Bidaurretaraino bertan hazitako aleak erostera joaten ziren tratulariak. Ohikoena zen etxeko emakumea izatea animalia prestatzeaz arduratzen zena, baina tratua ixteko arduraduna gizona izan zen, tratuaren munduarekin eta abere-tratulariekin lotura estua zuen praktika. Hala, maila pribatuan, baina batez ere saltzaileak eta bezeroak (izan zitezkeenak) biltzen ziren azoka edo merkatuetan, eszenaratzea maskulinoa zen, erabat. Bertan, bi aldeek bestearen aurrean eta komunitatearen



[Nicolás Ardanaz. Nafarroako Museoa, Iruña]

aurrean negoziarako dohainak jartzen zituzten agerian; hala, animalia goraiatzaren zuten, ebaluatu, prezio bat proposatu, kontra-proposamen bat egin, azken akordioa negoziatzeko eztabaidatu, tratua bostekoa emanez itxi, billeteak begi kuxkuxeroen aurrean kontatzeko atera, besteak diru-zorroan gorde, batzuetan bi aldeek tratuan galtzaile atera zela zin egin eta, batzuetan, tragoren batekin ospatzen zuten, eta, gero, ekintza gogoangarria modu onuragarrienean kontatzen zuten. Hala ere, gizonik ez zegoen etxeetan, emakumeak arduratzen ziren negoziatzeaz. Ondoren, Bidaurretara joaten ziren txerri-saltzaileak prezio jakin batekin joaten ziren, negoziatzeko aukerarik gabe.

Emakumeek **arrantzarekin** zuten harremana merkataritzaren bidez ere gertatzen zen: emakumeek saltzen zuten senarrek, aitek eta nebek arrantzaten zutena, baina herrian inolako emakume arrantzalerik ageri gabe.



[Pepa Beloki, 1968-1969]

Ehiza ere ez omen zen emakumeen esparruko jardueretako bat. Baliabide hori etxeko ekonomiarako laguntza bat ere bazen, ez salmentarako erabiltzen zelako, baizik eta, une jakin batzuetan edo zenbait ezustekoren aurrean (ahaideen bisita, eraterako), haragi-falta arintzen zuelako, eta, aldi berean, dieta aldatzeko aukera ematen zuelako edo tabernan askari bat emateko oso modu eskuragarria zelako. Behin piezak kobratuta, “*moldatu*” egin behar ziren: ebaketa bat egitea, “*pijama kentzea*”, garbitzea... Zeregin horietan askoz ohikoagoa zen emakumeen esku-hartzea.

Lehen ere aipatu da familia-unitatearen autohornikuntza ahalik eta gehien bermatzea zela helburua. Haren barruan, ekoizpenera bideratutako zereginez gain –aipatu ditugunak, besteak beste–, **baliabide naturalak ahalik eta gehien aprobetxatzea** ere bazegoen. Hala, erregaiz, elikagaiz edo tresnaz horni zitezkeen, adibidez.

Hori horrela, emakumeen berezko zeregin gisa identifikatu dira, besteak beste, **xirmenduak jasotzea** inausketaren ondoren; **begiztak egitea** zereal-sortak sokak balira bezala lotzeko⁶; **enborrak trontzatzea**, batez ere etxean gizonik ez bazegoen; sendabelarrak biltzea, hala nola intsusa, ukenduak eta pomadak egiteko; landako **elikagaiak jasotzea**, hala nola basaranak, barraskiloak eta abar.

Aipamen berezia merezi du **galburuak batzeak**, jarduera oso zabalduta baitago; normalean, uzta bildu ondoren geratu dena aprobetxatzean datza. Nahiz eta normalean jaso gabe geratutako galburuak izan, beste edozein produktu ere bil zitezkeen. Emakumeen eta adin txikikoen lana zen, baina, beste leku eta garai batzuetan ez bezala, Bidaurretan ez zegoen eskuratutakoa saltzen zuen “galburu-biltzaile” profesionalik; ordea, bitarteko horien bidez lortutako produktua etxerako aprobetxatzen zen, eta ez beti pertsonak elikatzeko, baita animaliak elikatzeko ere. Adibidez, txerri-hazkuntzak gora egin zuen urteetan, landara eramaten zituzten ahal zuten gutzia aprobetxatzeko (“*hala zioten, besteak beste: etxe horretan bababuruak batu behar dituzte, eta txerria eramaten lehena izaten saiatzen zinen*”).

⁶ Etxerako sokak –hainbat gauzatarako erabiltzen ziren– gizonek prestatzen zituzten. Geroago, espartzuak iritsi ziren, baina aragozpen bat zeukaten: “dirua balio zuten”.



[Goikoetxea Cilveti ahizpen eta nebaren argazkia, 1934koa. Eskuz idatzitako oharra argazkiaren atzealdean ageri da]

Un macho negro orgulloso de su cargamento
 2 canes muy bonitas,
 una carga desaminibelada
 2 cosas milia muy saladas
 Una moena muy graciosa
 y un buen muchacho que corona la
 fiesta ; todo lo vendo señores !
 por 30,000 reales
 ; Quien lo compra ? ; Quien ?
 a la una a las dos y a las
 tres ; Quien lo compra señores !

Bigarren mailako sektorea

XX. mendeak aurrera egin ahala, emakumeen presentzia industria-sektorean gero eta garrantzi handiagoa hartzen joan zen, batez ere 1960ko hamarkadatik aurrera izan zuen garapenaren ondorioz, eta arin joan zen nekazaritaztik etorritako eskulana bereganatzen (Sola Landa, 2019).

XX. mendean, Bidaurretaren nekazaritza- eta abeltzaintza-izaera are nabarmenagoa izan zen, han edo inguruetan herriari sarrera ekonomikoak ekarri eta emakumezkoen eskulana erakartzen zituen industria-egitura sendorik ez zegoelako. Gainera, emakumeak beren etxeetan erabiltzen zituzten industria-ereduak ere bazeuden, beste herri batzuetan gertatu bezala, non ehungintzako enpresa batek, adibidez, emakume bati moztutako pieza kopuru bat ematen baitzion epe jakin batean egindako arropa prestatuta buelta zezan. Hala ere, Bidaurretan ez dago praktika horren berririk, agian inguruan ez zegoelako halako industriarik.

Gutxienez, bi fabrika-erreferentzia garrantzitsu daude. Batetik, **Argaleko abeltzaintza**; 1960ko hamarkadaren erdialdean, Beraskoingo errepidean zegoen, Argiñaritzeko norabidean, eta bulegoa ere bazuen. Egoitza horrek lanpostu zuzenak sortu zituen Arraitzan, Beraskoainen eta Etxaurin, besteak beste; udalerrri horietatik, egunero, hara joaten zen jendea lanera, baina ez hainbeste Bidaurretatik. Gauza bera esan daiteke bigarren erreferentziaz, **Beraskoingo bainuetzeko** ur-fabrikaz. Bi kasuetan, hizpide dugun gaiari buruzko garrantzi handiena zeharkako inpaktua da, batetik, inguruko herriek hornitzen zituzten nekazaritza-produktuen eskatzaile gisa, eta, bestetik, eskatutako langileen artean profil kualifikatuak zeudela (bulegoa, laborategia...), emakumeentzako lan-nitxo bat osatzen zutenak.



[Nicolás Ardanaz. Nafarroako Museoa, Iruña]

Zerbitzuen sektorea

XX. mendearen erdialdeko Bidaurretako zerbitzuen sektorea izan daitekeenari dagokionez, zerrenda oso txikia da.

Lehenik eta behin, **merkataritza** aipatu beharko genuke. Dendaz (Etxarrin edo Beraskoainen bezala) eta harategiaz gain (ardi-okela baino ez, artzainek eramaten zutelako), ez zegoen beste establezimendu iraunkorrik. Hori ez da harritzekoa herri txiki batean, inguruko herrieekin eta hiriburuarekin ondo komunikatuta dagoen herri batean. Errealitate horren adierazle da landa-eremuko emakumeen ohiko lanbide bat, hala nola “mandatariarena” (interes handikoa ikuspuntu ekonomikotik, baina baita espazio publiko batean saltzen ziharduten emakume horien ikusgarritasun sozialaren ikuspuntutik ere, Ricardo Gurbindo Gil-ek aztertu duen bezala), ez zela herri honetan gertatzen, produktuak bitartekorik gabe eskuratzea erraza zelako.

Baina denda gehiago ez egoteak ez du esan nahi merkataritza-jarduera garrantzitsua ez zenik Bidaurretako familia askorentzat. Azienda larriaren salerosketa alde batera utzita –familiako gizonezko kideekin lotuago zegoen–, non diru kopuru handiagoak erabiltzen baitziren, baina sarrera noizbehinkakoa baitzen, emakumeak buru zituzten ohiko transakzio komertzialen kasu ugari zeuden.

Lehen ere aipatu da arrainaren salmenta, baina ez establezimendu espezifiko batean. Hura etxeetatik saltzen zen edo lur-otarre bat jartzen zen kalean, bizilagunak lona txikiak, barboak, aingirak, izkirak eta abar erostera joan zitezten. Arrantzan egiten zuten familientzat, hura etxerako “sostengu bat” zen.

Gauza bera gertatzen zen esnearekin; izan ere, soberan zegoena etxez etxe bana zitekeen, behirik ez zuen Bidaurretako bezero batzuen artean, edo Etxarrira edo bainuetxera eramaten zen saltzera, eta, hala, merkataritza-eremua handitzen zen.

Bainuetxeak ere baratzeetako barazkiak bereganatzen zituen (tomateak, piperrak, babarrunak...). Baina, gainera, produktu horiek urrutia goko zirkuituetarako erabiltzen ziren. Bidaurretako emakumeak haietara joaten ziren haien mandoekin: Izurtzu, Muniain, Gesalazko haran osoa, eta Amunarritzeraino ere, besteak beste, agian klimagatik edo lurraren konposizioagatik baratzeak Bidaurretan bezain ondo hazten ez ziren lekuetara.

Aparteko aipamena egin behar zaio Iruñean egiten zen salmentari: **barazkiak, fruta (gereziak, intxaurrak...), etxeko hegaztiak, arrautzak eta abar**. Emakumeak autobusez joaten ziren hara, eta, haien salgaiak hiriburuko merkatuetan jartzeaz gain –besteak beste, San Domingoko merkatuan–, haiek erosten zituzten saltokien sare handi bat ere bazuten (Mañueta kalean, Kale Nagusian San Saturninotik hurbil...), hala nola Torrens ospetsua.



[Belascoain enpresaren itxiera 1980]

Etxe partikularretan **tabernak** ere bazeuden. Establezimendu horietan, ezinezkoa zen emakumeak kontsumitzen aurkitzea; hala ere, ohikoa zen *"tabernari"* lanean egotea zerbitzatzen, kobratzen, afariak prestatzen... Ondoren, negozio-eredu hori tabernara aldatu zen, udalak alokatutako espazio batera, gizon batek gidatua; taberna horren osagarri, afariak ere bazeuden (familiako emakumeek prestatuak eta zerbitzatuak), baina ez establezimenduan, haien etxean baizik.

Komunikazioei dagokienez, Posta eta Telegrafoen zerbitzua bermatuta zegoen. Herrian ez zegoen, ordea, telefono publikorik; aitzitik, larrialdiren bat egonez gero, bainuetxera joaten ziren, han telefonista bat baitzegoen.

Osasunaren arloa bereziki interesgarria da, hartan ere emakumeen presentzia handia ikusten dugulako. Hala, medikuak (gizonezkoak) diagnostikatu eta botikak agintzeaz gain, sendaketak ere egiten zituen. Bidaurretan ez zegoen praktikantearen edo erizainaren antzeko figurarik, baina bazeuden **injekzioak** jartzen zituzten 4-5 emakume, edo sendaketak egiten zituzten.

Medikuntzaren eta haren ordezkarien (medikuak) espektro formal eta akademikotik kanpo, osasunari lotutako beste jakituria-eremu bat dago, baina, kasu honetan, behaketan, praktikan, ingurunearen ezagutzan eta hark eskaintzen dituen baliabideak aprobetxatzeko moduan eta ahozko transmisioan oinarritzen da. **Herri-medikuntza** da, tradizioz emakumei oso lotua; Bidaurretaren kasuan, pomadak eta ukenduak egiten zituzten emakume bizilagunek egiten zuten.

Eta zehazki femeninoa den eremu bati buruz hitz egitean, **ginekologia eta obstetriziaren** eremua dugu, emakumeak etxean erditzen ziren garaian, eta ez beti medikuaren laguntzarekin, baizik eta beste emakume batzuen laguntzarekin, *"sortzainen"* laguntzarekin (*"Emagina tituluduna zen. Hemen sortzainak ziren"*). Kasu horietan, oso formula hedatuak eta tokia edozein zela ere erabiliak izateaz gain, funtsezkoa zen banako esperientzia; bakoitzak bere erremedioak erabil zitzakeen, adibidez, erdiberriak plazenta bota zezan (Satrústegui, 1977:339).

Bizitzaren beste muturrean heriotza dago, baina elkarren eskutik doaz eta haien arteko tartea ez da beti luzea izaten. Azken sasoieta, Bidaurretan, **"hiltzen laguntzeko"** emakumeak zeuden. Haien egitekoa zen hiltzorian zegoen pertsonari laguntzea, eta haiengana jotzen zuten trantze-egoera horietan, lasaitasuna eta kofiantza eragiten zutelako. Apaizaren eginkizuna hiltzear zegoen pertsonari oleazioa ematea zen, eta emakume horiena, laguntzea, lasaitzea eta, agian, harekin otoitz egitea eta ongizate emozionala bilatzea.

Eta, hiltzean, berriz ere emakume batengana jotzen zen, **hila janzteko**⁷. Batzuetan, haurrak *"sortzain"* lanetan jasotzen dituen pertsona bera da, eta, hala, zirkulua berriro ixten du.

⁷ Hilak janzten zituzten gizonak ere bazeuden (*"Jesús osaba"*).

Zaintzen sektorea

Emakumeek “etxeko ingurune mugatuan egiten zituzten lan gehien helburu nagusia beste izaki batzuen behar pertsonalak zuzenean asetzea zen, (...) eta oso gutxitan ordaintzen ziren konpentsazio ekonomiko batekin” (Gurbindo, 2020:68). Hemen, nagusiki emakumeenak diren eguneroko jardura batzuk aztertuko ditugu, funtsezko hiru ardatzen inguruan: elikadura, etxea zaintzea eta pertsonak zaintzea. Banaketa hori antolakuntzako da, erabat; izan ere, benetan, zehazten diren zeregin guztiak zaintza-arlokoak dira, hau da, “**ugalketa-eremukoak**”, gizonezkoen lotutako “**ekoizpen-eremukoen**” **aurrean** (beraz, azken hori baino gutxiago balioetsiak, eta ez ordainduak), baina funtsezkoa da familiako gizonezkoen eskulana, etxeko betebeharreratik libre, lan-merkatu bideratu ahal izateko. Zaintzen sektore hori, ordaindu gabeko lan horrena (Durán, 2012), emakumeen historian nonahi zegoena, ez da kuantifikatu izan, eta ez da behar bezala erregistratuta geratu iturri ofizialetan: familiaren esparruan egiten zenez, ez zen kontratuetan oinarritzen eta ez zegoen monetarizatuta, eta, gainera, biltzen dituen jardueren egunerokotasunagatik, ez da behar bezala baloratu. Hala ere, Bidaurretako (eta, esango genuke, beste edozein lekutako) langile klaseko emakumeen bizitza osoan zehar egoten zen presente, horrez gainera, landan, fabriketan edo salerosketan aritzen baziren ere, esaterako.

Elikadura

Badirudi elikadura biziraupenerako oinarritzak dela gauza jakina dela. Baina merezi du gogoeta egitea esaterako honako kasu hauetan guztietan eman beharreko urratsen inguruan: zereal hariak funtsezko elikagai bilakatzeko, adibidez, ogi bilakatzeko, edo abenduan hildako txerri baten haragia oraindik maiztzean aprobeztatu ahal izateko, edo gerezien denboraldi laburra amaitu eta hilabete batzuetara oraindik gozo moduan dastatu ahal izateko. Ikusi dugu emakumeek nekazaritzako eta animalien hazkuntzako zikloetako zereginetan nola parte hartzen zuten. Orain, lehengai horiek jateko ez ezik, irauteko ere beharrezkoak diren prozesuak aztertuko ditugu labor-labor.

Ogia egiteko orduan, labea gizonen zein emakumeek presta zezaketen, baina ogia prestatzeko zeregin guztiak emakumeen zegozkion: irina bahetzea, urarekin eta etxeko legamiarekin nahastea oraskan, oratzea, hartitzen uztea eta egostea.

Txerri-hilketari dagokionez, gizonezkoek egiten zituzten animalia hiltzeari, garbitzeari eta zatikatzeari buruzko ekintzak, baina emakumezkoek odolkiak egiteko odola jaso eta erraiak prestatzen zituzten, hestebeteak (txistorra, txorizoa, lukainka eta birika) egiteko prestakina⁸. Txerri-hilketan parte hartu zuten gizonentzako bazkaria eta afaria prestatzeaz ere arduratzen ziren.

Produktu horiek egitea funtsezkoa zen familiaren elikaduran, eta, horretarako, gehitzen ziren beste osagai batzuk ere prestatu eta prozesatu behar ziren, eta nahasketen kantitateak eta proportzioak, prestateta-denborak, egosteko edo betetzeko puntuak eta abar ere kontrolatu behar ziren. Gainera, produktu horiek eginda eduki ondoren ere, ondu bitartean alferrik ez galtzea zaindu behar zen, eta behar zituzten hezetasun-baldintzak kontrolatu eta zuzendu behar ziren, adibidez, aire-korronteen edo kearen bidez. Bestalde, olioari esker, solomoak tinajetan kontserbatzen ziren (batzuetan txorizoak ere bai) zartaginetik pasatu ondoren; gatza urdaiazpikoak ontzeko erabiltzen zen...

⁸ Lehen hiruretan, haragia animalien alde nobleetatik zetorren, baina birikak bihotza, giltzurruna, birika bera eta urdai-azalak egosiz prestatzen ziren. Bidaurretako gastronomiari lotutako beste hesteki mota bat, betekia (relleno) deitzen dena, aldiz, txerri-hilketaren testuingurutik kanpo prestatzen zen, une berezietan lotuago, hala nola jaiei.




[Argazkiak : Angelines, txerri-hilketa, 2000]

Emakumeek prozesu horiekin harremana estua bazuten ere, tabu batzuk bazebiltzan noiz egin zitzaketen eta noiz ez. Hala, oso hedatuta zegoen uste bat: emakumeek hilekoarekin bazeuden, erraiak alferrik galtzen ziren.

Familiako elikaduraren beste funtsezko elementu bat **kontserbak egitea** zen. Etxeek hozkailurik ez zuten garaian, funtsezkoa zen urte osorako ahalik eta elikagai gehien eskuratzea. Etxe bakoitzean berea (eta bere erara) egiten bazen ere, ez zen ezohikoa elkarri laguntzea, kopuruen eta denbora aldetiko estutasunaren arabera. Produktuaren eta behar zituen baldintzen arabera, kontserbatzeko modua bata edo bestea izan zitekeen. Ohikoenak tomatea (kortxoia zuten botiletan), marmeladak eta gozokiak (gereziak, pikuak...), muztioa edo arropea (mahatsa) edo fruta deshidratatuak (pikuak, mertxikak, mahatsa...) ziren.





[Rosamari Labiano, 1995]

Ettxeko esferaren beste eremu nagusi bat familiarentzako **ur-hornidura** izan da, funtsezkoa, edateko ez ezik, garbitzeko edo janaria prestatzeko ere. Etxeetaraino kanalizaziorik ez zegoen garaian –Bidaurretan 1950eko hamarkadaren amaieran gertatu zen–, eta putzua egon zitekeen etxeetan izan ezik, edozein herritako iturrian neskak, neskatoak eta emakumeak ibiltzen ziren. Familia-hornidurarako etxera eramaten zuten urez hornitzeko tokiez gain, iturriak erreferentziazko lekuak ziren emakumeentzat, haietan egoten baitziren haien berdinekin; era berean, kasualitatez (edo ez hainbeste) elkartzeko topagunea ere bazen bi sexuetako gazteen artean, nor bere eginkizunak betetzen (emakumeak, ura hartzea; gizonak, ganadua edatera eramatea inguruan dagoen uraskara), komunitatearen begien aurrean.

Etxea mantentzea

Arropa garbitzea emakumeen beste jarduera nagusietako bat zen. Arropa garbitzeko tokiak, ibaia edo garbitokia izan, Bidaurretan izan ziren bietako edozein, esaterako, emakumeen elkargune eta sozializazio-gune ziren, iturriak bezala. Baina haiek, batez ere, oso lan gogorra egiteko lekuak ziren, neguan bereziki, ordu luzez luza zitekeena, jarrera deserosotan eta ahalegin fisikoa eskatzen zuena (ez soilik garbitzean, baita arropa bertara eramatean ere). Gainera, arropa garbitzea emakumeen lanbide nagusi-nagusietako bat zen (Ávila Ojer, 1999), eta oso prekariora zen hiri-inguruneetan, non garbitzaileak gehiago eskatzen baitzituzten (Mendiola, 1998; Sarasúa, 2003).

Bidaurretan, *"garbitzaileak"* egon ziren, beste etxe batzuetara garbitzera joaten ziren emakumeak, baina ez beti ordainsari ekonomiko baten truke, beste arrazoi batzuegatik baizik: batzuetan, karitategatik (adibidez, familiako ama gaixorik bazegoen edo hilda bazegoen...); beste batzuetan, truke batengatik (adibidez, zelai bat lagatzeagatik, inoiz emandako zaku bat garirengatik, nekazaritza-lan batzuetan laguntza jasotzeagatik...).

Arropa, batik bat, etxeetan egiten zuten, gehien ikusten zen arropa zein barrualdekoa (galtzontziloak, bularretakoak...). Puntua eta kakorratza ohiko lanak ziren, baita jostea, saretzea edo jantziak behar beste aldiz errepatatzea ere. *"la etxe guztietan zegoen pertsona bat josten ikasi behar zuena, denentzat [etxeakoentzat] josteko"*.

Etxea eta bertako tresnak (ontziteria...) **garbitzea** ere emakumeen betebeharra zen. Baina, eguneroko mantentze-lanez gain, tresna batzuk, aldian behin, zuzen jarri behar izaten ziren, eta emakumeak, eginkizun horretan, protagonista izaten ziren. Hala gertatzen zen urtean behin artilezko koltxoiekin; haiek desegin, artilea makilaz jo, garbitu, berriro sartu eta berriro josi behar izaten ziren. Baina, normalean, lan hori etxerako egiten zen arren, batzuetan norbaiti eskatzen zitzaion egiteko, baina beti oso testuinguru informalean: *"Honela izaten zen: 'Etorriko zara koltxoia egitera, ezta?'* Emakume horien izenari buruz galdetuta, *"koltxonera"* izan zitezkeen; parte hartzeko saioan parte hartu zutenek ziurtatu zuten ez zegoela *"ez izenik ez ezer"*, eta ez zutela *"titulurik gaixok"*.

[Nicolás Ardanaz. Nafarroako Museoa, Iruña]





[Nicolás Ardanaz. Nafarroako Museoa, Iruña]

Pertsonen zaintza

Pilar Erdozáinen esanetan, “emakume zaintzaile informalen (amonak, amak, inudeak eta neskameak) eta osasun-profesionalen (medikuak, emaginak, erizainak) historia genero-ikuspegitik baino ezin da eraiki” (Erdozáin, 2019:2).

Hazkuntza amen, amonen eta “*alaba nagusien*” ardura zen. Hazkuntza horretan sartzen ziren elikadura amaren eskutik (edo beste emakume baten eskutik, baldin eta ama hiltzen bazen, gaixorik bazegoen edo esnerik ez bazuen, eta, hala, “esnezko neba-arrebak” izaten ziren)⁹, haurren garbiketa (pixoihalak eskuz garbitzen ziren garaian), haien osasuna zaintzea, babestea eta jagotea. Lehen urteetan, familiako emakumeek ere funtsezko zeregina betetzen zuten belaunaldi berrien heziketan eta sozializazioan; izan ere, hizkuntzari buruzko lehen ezagutzak, ingurune hurbilena eta etxea eta erkidegoko bizitza arautzen zituzten idatzi gabeko arauak transmititzen zizkieten, eta familiako kide berri bakoitza haren sexu biologikoaren arabera esleitzen zitzaizkion betebeharrak eta portaeretan sartzen joan ahala.

Mendeko pertsonentzako arreta ere alderdi nabarmena zen emakumeen zaintzaren esparruan; adinekoei, gaixoei eta mendekoei ematen zitzaien, “*hil arte etxean zeuden*” eta. Baina zainketa-sareak etxeaz haraindi zabal zitezkeen eta auzo-sareekin nahas zitezkeen. Hala, zenbait lekukotza batu dira, besteak beste, honako hau: hurbileko familiarik gabeko gizon bati buruzko testigantzak jaso dira, izan ere, kontsultatutako emakumeetako batek gogoratzen zuen nola denbora luzez gosaria eramaten egon zen, agian haren kabuz moldatu ezin zen garairen batean. Beste batek adierazten zuen gizon hori berori askotan joaten zela bere etxera berotzera.

⁹ Esate baterako, Julia izeba Tomasak hazi zuen, Lazkano etxeok. Macayaren etxean ere esnezko neba bat zegoen. (Antona Erdozáin eta Armendariz Murillo). Hala ere, Bidaurretako ezaugarri sozioekonomikoak kontuan hartuta, ez da ezagutzen inuderik edo hazamarik; hura klase aberatsagoenak eta aurreragoko sasoi-tako kontua zen.



[Nicolás Ardanaz. Nafarroako Museoa, Iruña]

Emakumeen ogibideak eta lanak

Orain arte, belaunaldiz belaunaldi Bidaurretako emakumeen bizitza garatu den esparru orokorraren zirriborroa egin dugu; esparru horrek haien esku-hartzea zuten eguneroko zereginak eta jarduerak zehazten zituen, familiaren mantenua eta ongizatea eta herriaren garapen ekonomikoa lortzen laguntzen zutenak. Jarduera horiek, gehienetan, familia-betebehar edo -erantzukizuntzat hartzen ziren, baina haietako batzuk baino ez ziren ordainpekoak. Hau da: **lanak ziren, ez enpleguak**. Gainera, Bidaurretaren biziraupen-ekonomia bera, zenbait eginkizunen urtarokotasuna eta abar direla eta, haiek ez ziren beti ogibide bilakatzen, berez, nahiz eta trebetasun eta espezializazio handia eskatu. Parte hartzeko saioan parte hartu zutenek adierazi zuten bezala, *“ez dira ogibide izatera iritsi”*.

Hala ere, eredu orokor horretan, salbuespen batzuk daude; hala, emakumeek egindako lan jakin batzuek nolabaiteko kontsiderazio soziala dute (ez nahitaez), nolabaiteko bereizketa egiten da gainerakoan aldean eta hala islatzen da, adibidez, ogibide baten izenean. Hona hemen kasu bat: **“esneketariak”**, esnea saldu eta banatzen zutenak; bitxia bada ere, mota guztietako produktuak merkatura edo beste herri batzuetara saltzera eramatea bezalako jarduera hedatua, ordea, ez zen “saltzaile” terminoaz izendatzen, beste lurralde batzuetan bezala (Labayru, 2021).

Beste adibide bat emakume **“sukaldariak”** dira; une jakin batzuetan, Bidaurretako beste etxe batean horretarako eska zitzaketen emakume horiek, eta ordainsariren bat jasotzen zuten horregatik. Hala ere, hileta-elizkizunen batengatik janaria prestatu behar zutenean, laguntza garrantzitsua zen, pertsona maite bat galdu zuen familia batek agape¹⁰ jendetsu bat antolatu behar zuen unean. Elkarrekiko laguntzaren esparruan ere (ekonomikoki ordaindu gabea), **“mondongerak”** ditugu, eta haiengana jotzen zuten, zeukaten trebetasunagatik.

Nahiz eta txiki-txikitatik neska-mutilek betebeharrak hartzen zituzten familian, eta, beraz, familiak mantentzen laguntzen zuten, familiaren errealtateak berak markatzen zuen banako ekarpen hori bereziki beharrezkoa zen unea (*“Ahizpak ni hazi ninduen, ama beti gaixorik zegoelako. Eta berak hazi ninduen, hamaika urterekin”*). Hori horrela, eskuratutako trebetasunek lan-nitxoetara sartzeko aukera ematen zuten. Hala adierazten du parte hartzeko saiora bertaratu zen emakumeetako batek: *“Garai hartan, eskola 14 urterekin amaitu, eta, etxean pila bat ginela kontuan hartuta, amak esaten zizun: ‘hemen ezin zara gehiago egon. Zure bizitza atera behar duzu! Eta ahal zenuen lekura joaten zinen: zerbitzatzen... jantzigintzako tailer batera...”*.

¹⁰ Une horietan, auzokoe laguntzeko beste modu bat zen ontziteria uztea.

Hala, beste aukera bat zen beste etxe bat modu egonkorragoan zerbitzatzea, herrian bertan zein beste herri batzuetan (adibidez, Etxaurin), hiriburuan edo Usurbilen; izan ere, bertako erietxe psikiatrikoan Bidaurretako zenbait neska lana aurkitu zuten. Etxeko zerbitzua izan zen emakumeen eskulanaren enplegatzaile nagusietako bat. Protagonistek beraiek azaltzen dute zergatik: "Lehen ez zegoen orain bezalako bitartekorik, orduan nahitaez irten behar zinen zerbitzatzera. Ikasi, nola? (...) Autorik ez zeneukan (...) Orduan, nahitaez irten behar zinen zerbitzatzera." "**Neskame**" en artean **sukaldari, umezain, garbitzaile edo dontzeila** lanak sartzen ziren ("nire ama dontzeila izan zen"). Emakume horien lan-baldintzak etxe batetik bestera oso ezberdinak izan zitezkeen arren, baita garaia arabera ere, sukaldariarena ikusten zen ondoen. Adibidez, hiriburuan zerbitzari izatearen abantailak bat ostatu zituztela zeneukala zen.

Etxeko zerbitzua **ostalaritzaren** ataria ere izan zitekeen, edozein eremutan ere: taberna, ostatu edo jatetxe bateko sukaldean; otorduak zerbitzatzeko; logelak garbitzen...

Joskintza ere esparru interesgarria da; izan ere, askotan, ekonomia informala eta formalaren artean zegoen. Beste herri batzuetan, "jostunak" zeuden eta, hala, neskek ebaketa eta jantzigintza ikasten zuten, baina, Bidaurretan, ez dago haien berririk. Ezta emakume batek ere **jostun** lanean jarduten zuenik ere, maila informalean bada ere. Egiaztatu dena da emakume auzokideen arteko akordioak zeudela arropa probatzeko, konponketak egiteko... Baina lruñean jantzigintzako tailerrak zeuden, eta, haiei esker, espezializazio bat lor zitekeen ikaskuntza baten bidez; hala, jostean gain, josten ere irakasten zuten.

Beste lan-nitxo bat merkataritzarena izan zitekeen. Dagoeneko aipatu da azokara edo denda partikularretara joateko ohitura, barazetik, kortatik edo fruta-arboletatik lortutako produktuak saltzera. Bestalde, merkatuak eta dendak ere (batez ere elikagaietakoak, baina baita beste adar batzuetakoak ere) emakumeen presentzia handia izan duten guneak izan dira tradizioz, haiek arduratzen baitziren etxerako behar zena hornitzeaz. Modu logikoan, merkataritzak eskulan gisa hartu zituen arrandegietan, zapata-dendetan eta abarretan «**saltzaile**» lanetan emakumeak.

Fabrikeri dagokionez, aurretik ere aipatu da zenbait enpresak, besteak beste, Argalek edo Beraskoingo bainuetxeak, emakumeen enplegatzaile gisa duten zeregina, dela "**langile**" gisa, dela "**bulegoan**" edo "**laborategian**" (bitxia bada ere, kasu horietan ez da hainbeste izendatzen zer egiten den, non baizik).

Sozialki mailaz igotzeko baldintzak eta aukerak

Emakume horien lan-baldintzak ezarri zituzten baldintzak faktore pertsonalen (trebetasuna, interesa, itxaropenak...) eta kanpoko faktore batzuen (familia-premiak, eskaintzaren eta eskariaren arteko harremana lan-sektore espezifiko batean...) arteko konbinazioa dira. Gainera, soldatak asko alda zitezkeen sektoreen edo enpresen arabera: parte hartzeko saiora bertaratu zen batek kontatu zuen Usurbilgo bainuetxean 600 pezeta kobratzetik "udan, jatetxe batean, 2.500 pezeta kobratzera" pasa zela. Hala ere, jasotako beste testigantza batek honako hau zioen: «Nik jende asko ezagutu dut etxeetan zerbitzatzeko zebiltzanak, aseguruak ordaindu gabe». Beste batek, lantegi bateko bulegoetan lan egiten zuenak, honako hau kontatzen zuen: "Niri 5.000 pezeta ordainduko zizkidatela esan zidaten. Eta, eman zidaten lehen gutun-azalean, 10.000 sartu zizkidaten (...). Ez nuen sinesten. Harrituta geratu nintzen hura ikusi nuenean (...), baina, gero, denetarik egin behar zenuen, denetarik ikasi nuen". Azken batean, esperientzia pertsonalak askotarikoak izan ziren.

Lan bat bera ere ez zen gutxiesten, baina guztiak ez ziren berdin ulertzen: "neskame izan edo laborategi edo bulego batean egon, alde handia zegoen. Eta neskame izan edo denda batean egon ere, alde zegoen". Errealitate hori ezagutzeak gizarte-mugikortasuna errazten du; izan ere, erabaki jakin batzuk hartzen laguntzen du, berehalako oraina ez ezik (biziraupen-ekonomia

batean gertatzen den bezala), epe ertain eta luzerako aukerak kalkulatu ere. Hala aurkitzen ditugu, adibidez, zerbitzatzera zihoazen eta, aldi berean, ikasten ari ziren neskek; hala, une jakin batean lan-sektorez aldatzeko aukerak handitzen zituzten.

Zehazki, emakumeen hezkuntzaren eremuan (eta emakumeen hezkuntzarekiko pentsamoldearen esparruan), garrantzi handiko aldaketa gertatzen hasi zen. Mendeak aurrera egin ahala, eta familiaren egoera ekonomikoak eta pentsamoldeak horretarako aukera ematen dutenean, ikasketak neskentzat ere inbertsio gisa hartzen hasi ziren, bizitza-maila hobea lortzeko bitarteko gisa, baina ikasketa horien xede ziren lanbideak emakumeen rolean gatazkan ez sartzea bideratzen ziren. Hala, irakasleak gurasoei esaten zienean “neskak ikasteko balio du”, aukera zegoen Ziritzara joateko batxilergoa bere kasa ateratzeko eskolak jasotzera eta Hezkuntzan, Osasunean, Enpresan eta Administrazioan, besteak beste, lan egiteko aukera emango zieten ikasketak egiteko. XX. mendearen bigarren erdian ikas lezakeen eta ikasi nahi zuen edozein neskaentzat aukera ohikoenak Idazkaritza, Laborategia, Erizaintza edo Magisteritza ziren. Eskaintza nahiko mugatua bazen ere, argi dago hark emakumeen ikusgarritasun profesionalean aurrerapauso handiak zekartzala. Emakumeek eremu horietan izan duten presentziaren bilakaera bereziki interesgarria da beste aldaketa sozial batzuen isla eta eragile gisa (Berruezo, Casanova eta Ema, 2019; Maiza Ozcoidi, 2019).

Beraz, Bidaurretako emakumeen lanak baloratzerakoan kontuan hartu beharreko elementu bat emakumeen proaktibitatearekin lotuta dago, herrian eta herritik kanpo aukera berriak bilatzearekin, oraindik emakumeentzat oso mugatua zegoen lan-merkatuan integratzeko. Jasotako lekukotzetako batek hala erakusten du: “Gainera, ez zegoen fabrikarik aukeratzeko (...), gizonak ziren, gizonak. Emakumeentzat ere ez zegoen ‘ni bertan sar naiteke’ esateko moduko gauza askorik” (...). Argalen kasuan, emakumeen kontratazio-ehuneko handia zuen enpresaren kasuan, gizonak “edo arduradunak ziren edo indar gehien behar zen tokian zeuden”; beraz, bulegoa lan-aukera gisa eskaintzen zitzairen.

Gizarte-baldintzen eta -mugikortasunaren esparru horretan antzeman genuen aldaketa bat gertatu zela parte hartzeko saiora bertaratu ziren 1930-50 artean jaiotako emakumeen errealitatearen eta, haiek beraiek kontatuta, haien amek edo amonek bizi izan zutenaren artean (eta ongi ezagutzen zituztela, dela lekuko zuzenak izan zirelako, dela protagonistek, hau da, aurreko belaunaldietako Bidaurretako emakumeek, kontatu zizkietelako). Emakumeek haien amen edo amonen garaian izan zituzten ogibide edo jardueri buruz galdetuta, ezaugarri konstante bat zen urtaroko lanak zirela (mentatzea, erremolatxa garbitzea...) edo lan puntualak (koltxoak konpontzea, arropa garbitzea, hila janzteak, erditzeetan laguntzea...), beste batzuekin batera egiten zituztenak (“zure ama [koltxonera ez ezik], txertatzailea ere zen”). Bestalde, ordaindu gabeko jarduerak ziren, ez behintzat dirutan egindakoak, baizik eta gizarte-harremanak arautzen zituzten beste kontzeptu batzuen mende zeudenak, elkarri laguntzeko kodeen arabera: ahaidetasun- eta auzotasun-loturak, karitatea, trukea... Azkenik, emakume ezkongabeen, alargunen edo ezkonduen “ogibide” espezifikorik ez zegoen arren, eta oro har, “guztiek denetarik egiten zuten” arren, eremu jakin batzuk (injekzioak jartzea, sortzain-lanak egitea, hiltzen laguntzea, hilak janzteak) adineko emakumeenak ziren, normalean ezkonduenak edo alargunenak.

Emakumeak eta komunitatearentzako lanak

Orain arte, emakumeek Bidaurretan egindako jarduerak aztertu ditugu, laneko eta banakako ikuspegitik, eta identifikatutako lan edo ogibide bakoitzaren ezaugarri nagusiak aipatu ditugu. Baina badira lan batzuk, beste pertsona batentzat egin beharrean, gizartearentzat egiten direnak, edo, nolabait, komunitatearen barruan berezitat hartzen direnak. Zentzu horretan, alde batetik benetako ogibideak aurkitzen ditugu, **maistra**rena, esaterako.



[Nicolás Ardanz. Nafarroako Museoa, Iruña]

Hori da aguazilaren kasua; tokiko administrazioari lotutako kargu bat zen eta gizon batek bete ohi zuen. Hala ere, Bidaurretan jasota dago figura hori txandaka izendatu zutenean emakumeak ere izan zitezkeela aguazil. Gainera, sakristaniarekin batera zihoan kargu bat zen, erlijioaren eta Elizaren pisuak eragin handia zuen gizarte batean oso presente zegoen beste rol bat.

Sakristauak Elizako soldatako gizonak ziren, eta, hala, hainbat betebeharrak zituzten, hala nola apaizari laguntzea, kanpaia jotzea, arrosarioa gidatzea eta abar. Baita tenpluaren garbiketaren ingurukoak ere, nahiz eta, berez, emazteak edo alabek egiten zituzten. Titularrak uneren batean haietakoren bat egin ezin bazuen (adibidez, kanpaiak jotzea, gaixorik zegoelako), emaztea arduratzen zen automatikoki horretaz, **baina ez zuen sakristau titulua jasotzen**.

Elizaren eremuan, beste figura hau dugu: "**gelaria**, apaizari elikadurari, etxeke garbiketari eta abarri buruzko gaietan arreta ematen zion emakumearena. Gainera, eliztarrei buruzko informazioa ematen zion ("**esamesak kontatzen zizkion, galtzerdiekin edo galtzetekin joaten zinen edo ezer gabe**"). Emakume hori apaizaren familiakoa izan ohi zen (ama, arreba...), baina, haiek ez zeudenean, agian apaizarena beste lan-aukera bat izan zitekeen zerbitzatzen hasteko orduan.



[Bidaurretako neskek bikinia jantzita, udan] (Zer pentsatuko ote luke “gelariak”?)

Auzolana ere badugu, gizartearen onurarako eta baterako lanean oinarritutako gizarte-erabileretako bat. Parte hartzeko eremu hori batez ere maskulinoa bazen ere, egiten ziren zereginengatik (bideak garbitzea...), baziren antzeko espiritua zuten beste zeregin batzuk, emakumeek egiten zituztenak, nahiz eta teoriarik auzolanetik kanpo egon. Hori zen herriko jaien eta ospakizun garrantzitsuen kasua (Aste Santua, adibidez); haietan, emakumeak aldareak prestatzeko mobilizatzen ziren. Gainera, garai haietan, kaleen garbiketa etxe bakoitzari zegokion kale-zatia mantentzeko ohiko lanak baino sakonagoa izaten zen.

Bestalde, eta jai-esparrutik irten gabe, beste udalerrri batzuetan, familian gizonik ez zuten emakumeek auzolanarekin elkarlanean aritzeko modu gisa identifikatu da egun horietan musikariak hartzea. Ohitura hori Bidaurretan ere izan zen (baina ezin izan da egiaztatu auzolanaren barruan gertatzen zen ala auzokideen parte-hartzearen beste adibide bat zen, soinu-jotzaileei eta herritik ibiltzen zen txarangari edaria eta pastak eskaintzen zitzaizkien bezala). Urte batzuk geroago, musikariek, herriko etxeetan banatu beharrean, Etxaurin hartzen zuten ostatu.

Azkenik, txokolatada, afari herrikoi eta abarren antolaketa ere emakumeek parte hartzen zuten, batez ere duela gutxi, Saigola sortu zenetik.

Etxe barruko eta kanpoko lana.

Kontziliazioaren gai korapilatsua

Generoak ere erabat zeharkatzen ditu denboraren pertzepzioa eta kudeaketa. XX. mendearen lehen erdian biziraupen-ekonomiaren testuinguruan jaiotako landa-eremuetako emakume langileen kasuan, emakumeek (gizonek baino gehiago) gainerako familiaren premiak norberaren premien gainetik jartzeko eskatzen zuen pentsamoldean oinarrituta, emakumeek beren buruari eskaini ziezaioketen denbora oso urria zen, Jone Alastueyk Erronkari ibarrean gai horri buruz egindako ikerketan erakutsi zuen bezala (Alastuey, 2014).

Etxea, baratzea, soroa, soberakinak saltzea, arropa garbitzea, auzokoei laguntza ematea inork eskatzen bazuen, jostea eta elikagaiak prozesatzea; zeregin horiek guztiak eta gehiago ziren Bidaurretako ia edozein emakumek, familia-erantzukizunak zituztenek, bete beharrekoak. Funtsezko beste elementu bat amatasuna eta/edo mendeko pertsonen zaintza zen. Hala ere, errealitate naturalizatu zen, parte hartzeko saioan partekatutako zenbait iruzkinek erakusten dutenez:

- ✓ *“Hamaika lekutan egon behar zen, baina etxeko lana zen”.*
- ✓ *“Nik ama ikusten nuen: goizean bazkaria egiten zuten. Garbiketak ez ziren gaur egun egiten ditugunak bezalakoak, baina... Aitaren galtza handi batekin bi egiten zizkien txikiei, baina hori arratsaldean... Bada, hori normaltzat jotzen duzu, gauzak egiten egotea”.*
- ✓ *“Erremolatxaren garaian hotz egiten zuen... Garai batzuetan nekatuta zeunden: adibidez goiz osoan xirmenduak jasotzera joaten zinenean, etxera iristen zinenean, janaria egin behar zenuela, hau, bestea...”.*
- ✓ *“Egia esan, gehienak heroiak ziren. Nik ez dakit nola iristen ziren... Ez dakit nola iristen ziren”¹¹.*

Iristeko moduetako bat, hain zuzen ere, “zaintza-kateak” direlakoak ziren; alegia, une jakin batzuetan haurren (edo mendeko pertsonen) zaintza eskuordetzea, denbora hori familia mantentzeko hain beharrezkoa zen beste jarduera bati eskaini ahal izateko:

- ✓ *“Neba-arreba nagusiak txikiez arduratzen ziren pixkanaka. Emakumeek kontziliatu ahal izateko aukera bakarra zen”.*

Baina nabarmendu behar da kontziliazio hori ez zela hainbeste lanaren eta bitzta pertsonalaren artekoa, baizik eta lanaren hainbat alorren artekoa: etxerako egindako lanak eta etxean ere berrinbertitzen zuen diru edo produkturen bat lortzeko aukera ematen ziotenak edo aurretik jasotako laguntza bat itzultzeko zena, adibidez.

¹¹ Era berean, bitxitasun gisa, honako hau komentatu zuten: emakume nagusi bat, familia ugariaren ama; izan ere, haren garaian, erditzera joatea eta ospitaleratuta egotea “oporretan egotea” bezalakoak zen.



[Nicolás Ardanaz.
Nafarroako Museoa,
Iruña]

Zorionez, “emakumeek jakin izan dute haien ‘betebeharren’ esparruak jai-eremu bilakatzen; halakotzat jotzen ditugu topaketarako, komunikaziorako eta algararako guneak” (Juliano, 1989:36). Hala, iturriak, garbitokiak edo etxeko ateko solasaldiak “haien sexuari” zegozkion lanen barruko lan-uneak izaten jarraitzen zuten, baina berdinekin partekatutako askatasun-gune ere bihurtzen ziren, eta, gainera, askotan, oroitzapen hori nagusitzen da neke fisikoaren gainetik, nahiz eta neke hori bizi izan (Gallego Muñoz, 2010).

✓ *“Eta, larunbat gauetan, galtzerdiak saretu, igandean mezatarara eraman behar zirelako”. “Gogoan dut ama galtzerdi sorta batekin ateratzen zela kaleko atera, haiek konpontzera, orpoak konpontzera... Eta zakuak aletarako, uztarako, andanaka... Eta han eserita denak... Oso polita zen”.*

Familiarekin partekatutako beste lan-une batzuetan ere izan zitekeen giro hori, hala nola artoa aletzean edo gereziak biltzean.

✓ *“Familia osoa aletzen eta kontuak eta gauzak kontatzen, edo arrosarioa erreztatzen... Zein polita zen”.*

✓ *“Oso umezaro polita bizi izan dugu”.*

Paradoxikoa bada ere, garai berriek berrikuntza teknologikoak ekarri zituzten, etxeko lan astunenetakoz batzuk erraztu eta laburtu zituztenak, baina familia eta lana bateratzeak jarraitu zuen (eta jarraitzen du) arazo bat izaten. Lan-merkatuan erabat sartu bazen ere, ez zen familia-arloko erantzukizunen banaketa berregokitu, eta lanaldi bikoitza errealitate bihurtu zen (geratzeko etorri zen), eta, perspektiban ikusita, hobe da umorez hartzea:

✓ *“Azkenean, hala amaitzen duzu. Ez dakizu horretatik nola irten zaren, baina lortu duzu”.*

✓ *Emakume horiek beren bizitzan egin dituzten lan-jarduerak gorabehera, “hemen denok gara etxekoandre lizentziatuak [barreka]”.*

Etxean ez zirudien beti kontuan hartzen zenik ordaindutako lanaldia ere izatea, eta lan-eremuan ez zirudien kontuan hartzen zenik enpleguak zaintza-rolak bete behar ez izatea. Hala, XX. mendearen azken laurdenean, bulegoan, oraindik ere, honelako egoerak gertatzen ziren:

✓ *“Baina tokatzen zitzaizun, emakume zinen aldetik; adibidez, ni bakarrik nengoen, eta, norbait erortzen bazen edo zauriren bat egiten bazuen, neuk sendatu behar nuen. Sei edo zortzi gizon zeuden eta ni emakume bakarra. Bada, gertatzen zen guztia emakumeak egin behar zuen. Eta garbitu, zeuk garbitu behar zenuen bulegoa... Denetarako neska”.*

Emakume horien omenez: **Bidaurretako** erreferentziazko **emakumeak**

Atal honen bidez, gutxienez emakume batzuen izen batzuk berreskuratu nahi dira, haien trebetasunak, jakituriak eta lanerako gaitasunak beste asko ordezkatzan dituztenak¹².

TXERTATZAILEA:

Emakume batzuk espezialistak ziren, eta etxe batzuetara joaten ziren, hala nola:

- Genara Ciriza Hualde**, Palacio etxekoa
- Josefa Unzu Unzu Echalecu**, sastrearen etxekoa
- Agustina Itoiz Latorre**, Itoiz etxekoa (Gorricho etxera ezkondua)
- Dámasa Villanueva Ezkurra**, Ezkurra etxekoa, (*"Damasa"*)
- Ascensión Azcárate Eraso**, Azkarate etxekoa (frontoi aldeko etxekoa)

SUKALDARIAK:

Emakume batzuei etxeetara senitarteko ugari joaten ziren egunetan sukaldatzera joateko eskatzen zieten, esaterako, jaietan joateko (Beraskoain, Etxarri, Etxauri...), adibidez:

- Sabina Olleta Villava**, García etxekoa
- Felipa Tabar Razquin**, Razquin etxekoa (igeltseroaren etxera ezkondua)
- Agustina Itoiz Latorre**, Itoiz etxekoa (Gorricho etxera ezkondua)

KONTSERBAK PRESTATZEA:

- María Zabalza Elizalde**, Babil etxekoa; frutak kontserbatzeko modu asko zekizkien.

INJEKZIOAK JARTZEA:

- Eugenia Berrondo Churío**, Berrondo etxekoa (Razquin etxera ezkondua)
- Asunción Sarasa Ekiza**, Apezanekoa etxekoa
- Francisca Donazar**, (*"Paca andrea"*)
- Pili Ibero Ciriza**, Antonino etxekoa (*"Pili, Antoniorena"*)

¹² Izen gehienak "Los oficios de las mujeres de Bidaurreta en la primera mitad del siglo XX" lanetik datoz –Irene Antona Erdozainek eta Begoña Armendariz Murillok idatzi zuten–, eta, neurri askoz ere txikiagoan, parte hartzeko saiotik. Kasu batzuetan ez dugu abizenaren berririk. Beste batzuetan, emakume horien izena edo ezizena errespetatu dira (batzuetan, ezizen hori senarrarekin, etxearekin, filiazioarekin eta abarrekin lotuta egoten zen).

POMADAK PRESTATZEA:

Eugenia Berrondo Churio (*"Pomadatxo horrek mirariak egin zitzakeen"*)

María Anocíbar Salvide, Zurgin etxekoa

SORTZAINAK:

Concesa Echauri Eraso, Makaia etxekoa

Agapita Echalecu Ibarrola, sastrearen etxekoa (*"Agapita, sastrearena"*)

"HILTZEN LAGUNTZEN ZUTENAK":

Nicolasa Tabar Razquin, Razquin etxekoa (zapatariaren etxera ezkondua)

Asunción Sarasa Ekiza, Apezanekoa etxekoa

HILAK JANZTEN ZITUZTENAK:

Agapita Echalecu Ibarrola, sastrearen etxekoa (*"Agapita, sastrearena"*)

Felipa Tabar Razkin (jendeak honako hau esaten zuten: *"Felipak patxada zuen hilak janzteko"*)

MAISTRAK:

Francisca Donázar Garciriain, (*"Paca andrea"*). Zenbait adinetako berrogeita hamar ume baino gehiagori ematen zien arreta

KUTXAKO ORDAINAGIRIAK KOBRATZEA:

Pili Ibero Ciriza

PREMIA ZUTEN PERTSONAK ARTATZEA:

Asunción Sarasa Ekiza, Apezanekoa etxekoa. Txiroak hartu zituen bere etxean, amaiera arte; *"ez zeukan lekutik ere ateratzen zien jatekoa"*

Ondorioa

Bidaurretako ekonomia- eta gizarte-garapena ulertzeko, emakumeek eginiko ekarpena kontuan izan behar da. Horregatik, biziraupen-ekonomia bat ezagutu zuten azken belaunaldien memoria berreskuratu nahi izan dugu, inprimatutako dokumentazioa eta ahozkotasuna uztartzen dituen metodologia baten bitartez. Gainera, kabinete-lanean soilik oinarritutako beste azterlan batzuetan ez bezala, hura ere parte hartzeko prozesuetatik (tokiko informatzaileen testigantzak, eztabaida-saioa, argazki-materialaren ekarpena...) elikatzea bilatu da, tokiko komunitatearen protagonismoa bermatzeko.

XX. mendeko 60ko hamarkadara arte nagusiki nekazaria izan zen Bidaurreta horretan emakumeek zituzten erantzukizunak familiari ahalik eta ongizate handiena bermatzean oinarritzen ziren. **Horrek esan nahi zuen egunero jarduera ugari egin behar zirela etxe barruan eta kanpoan, baina zeregin horiek etxeko izaera galdu gabe.** Hala, emakume bat kaletik oinez ikusteak esan nahiko zuen, gehienetan, baratzerara, garbitokira, auzoko bati esnea saltzera, ahateei jaten ematera, barazkiren bat saltzera eramatera, une horretan nekazaritza-zikloak zehaztutako edozein lan egitera zihoala, edo zeregin horietako edozein egitetik zetorrela. Eta kalean auzokideekin solasean eserita ikusiz gero, ziur eskuen artean josteko lana zuela, haur-talde baten jolasa zaintzen ari zela... Edo bi gauzak.

Familiarentzat egindako lanak zirenez, ez ziren ordaindutako enpleguak. Beste familia batentzat egiten zirenean ere, elkarrekiko laguntzaren kontzeptuaren barruan sartzen ziren, "ordea"ren barruan, Bidaurretako etxe gehienetan zegoen material urritasuna neurri batean arintzen zuen elkarrekikotasun-sistemaren barruan.

Emakume horiek "ez zuten titulurik" izango beharbada, baina asko zekiten gauza askori buruz. Batez ere, aurrera irteten eta haien familiak aurrera ateratzen bazekiten, zegoen apurrarekin. Edozein jarduera, txikia ematen bazuen ere, familiarentzako "sostengu" zen, eta horregatik goiz hasten zen: gainerako neba-arrebak zaintzen, ama azokara babarrunak saltzera joan zedin; arropa garbitzera joaten, mahatsei kimuak kentzen, josten ikasten; amari babarrunak eta arrautzak merkatura eramaten laguntzen, pezeta batzuk irabazteko; etxe batean zerbitzari-lanetan sartzen; lan-merkatuan aukera gehiago izateko ikasten eta etxean laguntzeko diru gehiago irabazten... Jarduera horietako askok, egunerokoak zirenez, ez dute inoiz lekuri hartu Historia, Estatistika edo Ekonomiako orrialdeetan, baina erakusten dute emakume horiek benetako gizarte-aldaketako eragileak izan direla. Egungo belaunaldiaren aurreko belaunaldietako landa-eremuko emakumeen inguruan egon ohi diren aurreiritzietatik guztiz urrun dago errealitate hori, ezjakintasun-, atzerapen- eta pasibotasun-irudia proiektatzen duten haietatik urrun. **Horregatik, bidezkoa da haien esperientzietara hurbiltzea eta, horretarako, haien lana aintzatestea, eta haiei galdetzea, haiek konta dezaten.**

Bibliografia

Alastuey Garcia, Jone. (2014). *1920. hamarkadan Erronkari Ibarrean jaiotako emakumeen bizimodua: denboraren kudeaketa eta honetan genero-sistemak duen eragina*. Euskal Herriko Unibertsitatea, Ikerketa Feministak eta Generoko Masterraren Ikerketa lana, 2013-2014. ikasturtea.

Antona Erdozain, Irene. Armendariz Murillo, Begoña. "Los oficios de las mujeres de Bidaurreta en la primera mitad del siglo XX". Argitaragabea.

Nafarroako Administrazioako Artxiboa. (2019). <https://www.fondoscontemporaneosnavarra.es/eu/emakumeak-eta-agiriak>

Lana Berasain, José Miguel. "De mujeres y documentos, 5. Mujeres en la agricultura". www.navarra.es/NR/rdonlyres/0006e8b5/qbuxzthetoodqbfzwnjqgynnvjnxaoib/MujeresenlaAgricultura.pdf

Sola Landa, María Teresa. "Obreras y trabajadoras". www.navarra.es/NR/rdonlyres/0006d6d3/zhexrshthkddvrmddbsoshrxqbboldv/Obrerasytrabajadoras.pdf

Berruezo, Reyes; Casanova, Juan José; Ema, Javier. "Maestras y alumnas". www.navarra.es/NR/rdonlyres/0006f29e/myemsavpvftklmmpenmsyiousaufbljw/Maestrasyalumnas.pdf

Maiza Ozcoidi, Carlos. "La mujer en el ámbito administrativo. La velada transición de mecanógrafas a técnicas". www.navarra.es/NR/rdonlyres/0006e0c7/vmvzezckhlnrngxkrzjfzacasorwqdaj/Mujeresenelambitoadministrativo.pdf

Erdozáin Azpilicueta, Pilar. "Cuidadoras y sanitarias". www.navarra.es/NR/rdonlyres/0006efeb/twsjjxhopwedvjvtdsjhlylmhxtjffh/Cuidadorasysanitarias.pdf

Ávila Ojer, Inmaculada. (1997). "Lavaderos en la Cuenca de Pamplona", In *Cuadernos de etnografía y etnología de Navarra*. 29. urtea, 70. zk., 289-304. or.

Borderías, Cristina. (1989). "Las mujeres, autoras de sus trayectorias personales y familiares: a través del servicio doméstico". *Historia y fuente oral* nº 6. *Otras miradas*, 105-121. or.

Borderías, Cristina. (1993). *Entre línea. Trabajo e identidad femenina en la España contemporánea: La Compañía Telefónica, 1924-1980*. Bartzelona: Icaria.

Bravo Suescun, Carmen. (2012). *De la domesticidad a la emancipación. Las mujeres en la sociedad navarra (1961-1991)*. Nafarroako Gobernua, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutua.

Cabrera, Luis Alberto (2005). *Mujer, trabajo y sociedad (1839-1983)*. Madril: F. Largo Caballero fundazioa.

Del Valle, Teresa. (1983). "La mujer vasca a través del análisis del espacio: utilización y significado", In *Lurralde*, 6. zk., 251-269. or.

Del Valle, Teresa. (1999). "Procesos de la memoria: cronotopos genéricos", In *Áreas: Revista internacional de Ciencias sociales*, 19. zk., 211-226. or.

Díaz, Pilar. (2001). *El trabajo de las mujeres en el textil madrileño. Racionalización industrial y experiencias de género (1959-1986)*. Malaga: Malagako Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua.

Díaz, Pilar. (2003). "Memoria e identidad de las mujeres: nuevas fuentes de estudio", In De la Rosa, Cristina: *La voz del olvido: mujeres en la historia*. Universidad de Valladolid, 203-220. or.

Díaz, Pilar. (2012). "Las fuentes orales y la construcción de relatos biográficos", In Llona, Miren (koord.): *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 187-216. or.

Durán, Ángeles. (2012). *El trabajo no remunerado en la economía global*. Bilbo: BBV fundazioa.

Folguera, Pilar. (1987) *Vida cotidiana en Madrid. El primer tercio de siglo a través de las fuentes orales*. Madril: Erkidegoa, Kultura eta Kirol Kontseilaritza D.L.

Folguera, Pilar. (1994). *Cómo se hace historia oral*. Madril: Eudema.

Gallego Muñoz, Beatriz. (2019). *Relatos de sociabilidad tradicional. El patrimonio inmaterial del valle de Zuia*. Zuiako Udala, Murgia.

Gallego, Beatriz. (2010). "Una aproximación a la sociabilidad femenina y a la creación de la conciencia de género: los lavaderos en el mundo rural alavés", In euskonews 578 zk. <http://www.euskonews.com/0578zbk/gaia57802es.html>

García-Orellán, Rosa. (2012). "De la oralidad a la intención biográfica", In Llona, Miren (koord.): *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.

Gran Enciclopedia de Navarra. http://www.enciclopedianavarra.com/?page_id=20675

Gurbindo Gil, Ricardo. (2020). "Recardera, oficio de mujer". En *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 52, 94. zk., 63-98. or.

Iriarte Goñi, Iñaki eta Lana Berasain, José-Miguel. (2002). "El sector agrario navarro durante el siglo XX: modelo productivo y acción pública", In Lana Berasain, J.M. (ed.) *En torno a la Navarra del siglo XX. Veintiún reflexiones acerca de Sociedad, Economía e Historia*. Iruña, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, 79-112. or.

Juliano Coregido, Dolores. (1989). "Las mujeres y el folklore: el laberinto de los mensajes disfrazados". In *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 21. urtea, 53. zk., 33-42. or.

Labayru Fundazioa. Bendajerak = Vendajeras. Derio, 2021.

Llona, Miren. (2012). "Historia oral: la exploración de las identidades a través de la historia de vida", In Llona, Miren (koord.): *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea, 15-59. or.

Mendiola, Fernando. (1998). "Renovarse y morir: costureras y lavanderas, dos estrategias familiares diferentes en los inicios de la industrialización (Pamplona, 1840-1930)", In *Mito y realidad en la Historia de Navarra, volumen I*, Sociedad de Estudios Históricos de Navarra: Iruña, 317-331. or.

Nash, Mary. (1983). *Mujer, familia y trabajo en España (1875-1936)*, 1. ed. Bartzelona: Anthropos.

Pérez, José Antonio. (2004). *Los espejos de la memoria: historia oral de las mujeres de Basauri, 1937-2003*. Basauri: Basauriko Udala.

Sarasúa, Carmen. (2003). "El oficio más molesto, más duro: el trabajo de las lavanderas en la España de los siglos XVIII al XX", In *Historia social*, 45. zk., 53- 78. or.

Satrústegui, José María. (1977). "Medicina popular vasca y ginecología". In *Cuadernos de etnología y etnografía de Navarra*, 9. urtea, 27. zk., 331-344. or.

Thompson, Paul. (1988). *La voz del pasado. Historia oral*. Valentzia: Edicions Alfons el Magnànim. Institució Valenciana d'Estudis i Investigació.